

I.2.2. Zer da GPS-a?

TESTUAREN DESKRIPZIOA	
Testuaren izenburua:	Zer da GPS-a?
Erabilera esparrua:	AKADEMIKOA / DIBULGAZIOZKOA
Testuaren generoa:	AZALPENEZKOA
Iturria:	www.ibaizabal.com
Hurrengo testua irakurri eta galderei erantzun. ZER DEMONTRE OTE DA "GPS" A? • Aparatu horren bidez munduan egon daitekeen edozein pertsonaren, autoren, itsasontziren eta abarren posizio zehatza jakin daiteke. • Zehaztasun handia du. • Autoetarako GPSak edota baso ibilbideak, itsas nabigazioa... egiteko GPSak daude. • Modernoenek errepideetako mapa zehatzak dituzte edota hitz egiten dizute, zer bide hartu behar duzun esanez. • Aparatu oso txikiak (ukabil bat bezalakoa) eta eramangarriak dira. • 4-10 ordu irauten duen bateria izaten dute. • 200-300 euro balio dute. http://www.ibaizabal.com/txokogaztea	



01

Zergatik testuaren esaldiek daramate puntu beltz bat aurretik?

- A. Testu hauetan horrela egiten delako beti.
- B. Informazioa era argitsu eta ordenatuan emateko.
- C. Gauza oso desberdinak aipatzen direla markatzeko.
- D. Puntu horiek ez dute funtziorik: testua apaintzeko balio dute soilik.

02

Testuaren arabera, zer da zehatz-mehatz GPS-a?

- A. Pertsonak, soilik, non dauden seinalatzeko erabiltzen den aparatua.
- B. Aparatu eramangarria mapa bat pantailan duena, zehaztasun handikoa.
- C. Zein bide hartu behar den esateko balio duen aparatua eramangarri zehatza.
- D. Edozein izaki nahiz objekturen kokalekua zehazteko eta ibilbidea markatzeko balio duen aparatua.

03

Testuaren arabera, nolakoa da GPS-a?

- A. Oso-oso txikia.
- B. Karratua eta luzea.
- C. Esku itxi baten tamainakoa.
- D. Eraman daiteken poltsa baten antzekoa.



04

GPS berri-berria erosi nahi dio Ainarak amari. Zergatik?

- A. Zenbat eta modernoagoa orduan eta hobe delako.
- B. Modernoak beti zaharrak baino zehatzagoak direlako.
- C. Berri-berriek zer bide hartu behar den adierazten dutelako.
- D. Modernoek zaharrek baino iraupen handiagoko bateria dutelako.

05

GPS-aren bateriak iraun dezake...

- A. hamabi ordu.
- B. sei ordu inguru.
- C. lau ordutara ez da iristen.
- D. hamar ordu baino gehiago.

06

Non ager daiteke testu hau?

- A. Nobela batean.
- B. Entziklopedia batean.
- C. Egunkari batean: albiste da.
- D. Aldizkari batean: informazio laburra da.



07

Zeintzuk dira testuaren ideia nagusiak?

- A. Oso aparatu moderno eta txikia dela.
- B. 200 eta 300 euro bitarteko prezioa duela eta oso zehatza dela.
- C. Errepideetako mapa zehatzak dituela eta hitz egiten dizula, zer bide hartu behar duzun esanez.
- D. Aparatua daramanaren posizioa zehaztasun handiz markatzen duela eta garraiotan bereziki erabiltzeko dela.